

Test honek ez du inor epaitu nahi ezta errudun bezala seinalatu nahi, baina test honen erantzunetan matxismoaren sintomak argi ikusten badituzu, eskatu laguntza. Eta inolako sintomarik ikusi gabe ere, informazioa edukitzea ez dator gaizki.

Sindikatura bezala gizarte eraldaketa bilatzen duen gizarte eragile bat garen heinean, badugu erantzunkizuna errealitatean gertatzen diren hainbat injustizi edo egiturazko egoera desorekatuen aurrean. Egiturazko genero desberdintasun egoera eta indarkeria sexista kasu.

*Este test no tiene como objeto juzgar ni señalar como culpable a nadie, pero si a través de este test ves claros síntomas de machismo, pide ayuda. Y aunque no adviertas ningún síntoma, nunca viene mal tener información.*

*En la medida en la que somos un sindicato que busca la transformación social, tenemos responsabilidad ante la situaciones de injusticia y situaciones de desigualdad estructural como la desigualdad de género y la violencia sexista.*



2013.eko Azaroaren 25a. Indarkeria sexistaren aurkako nazioarteko eguna

# STOP!! Indarkeria sexistari

[www.ela-sindikatua.org](http://www.ela-sindikatua.org)



## Ba al dakizu indarkeria sexista antzematen?

*¿Sabes detectar  
la violencia  
sexista?*

**ELA**  
EUSKAL SINDIKATUA



## BA AL DAKIZU INDARKERIA SEXISTA ANTZEMATEN?

Emakumea edo gizona izatea ez da berdina ez lan munduan ezta bizitzako beste esparruetan ere. Gure barnean eta jendartearen sustraiturik dirauen egiturazko desberdintasun egoera honek elikatu eta mantendu egiten du egun emakumeek emakume izateagatik bizi duten egiturazko indarkeria; indarkeria sexista, alegia.

Arrotza al da errealitate hau askorentzat? Matxistak al gara? Benetan uste al dugu indarkeria sexistak ez duela gudan eta lan munduarengan inolako eraginik?

Irakurri galderak, hausnartu eta erantzun. Gomendagarria da norberaren hausnarketak idaztea.

Baloratu ezazu laguntza edo informazio osagarria behar duzun.

|           |                                                                                                                                                                                      |
|-----------|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <b>1</b>  | <b>Gizonezko edo emakume izateak zure ibilbide laboralean eragina duela uste al duzu? Zergatik?</b>                                                                                  |
| <b>2</b>  | <b>Inoiz zalantzan jarri al dute zure gaitasuna edota lanerako dohainak emakume zein gizon zarelako?</b>                                                                             |
| <b>3</b>  | <b>Zure ustez, lana eta bizitza familiarra eta pertsonala kontziliatzeak garapen profesionala eragozten du? Erabakiguneetan egoteko aukera galarazten dizu?</b>                      |
| <b>4</b>  | <b>Lanorduetatik kanpo ematen diren jarduera informaletan parte ez hartzeak zure lanean eragina izan dezakeela uste duzu? (poteo, afari, etab.)</b>                                  |
| <b>5</b>  | <b>Inoiz jaso al duzu soldata txikiagoa lan berdina eginagatik ere? Zein arrazoi medio?</b>                                                                                          |
| <b>6</b>  | <b>Ados al zaude honelako esaldiekin?<br/>"Emakumeak lanerako gizonezkoak baino okerragoak dira"<br/>"Gizonezkoak praktikoagoak eta arrazionalagoak dira erabakiak hartzerakoan"</b> |
| <b>7</b>  | <b>Jasan edo entzun al duzu komentario iraingarririk edo eraso publikorik zurekiko edo beste norbaitekiko, itxura fisikoa, ideologia nahiz hautu-identitate sexuala medio?</b>       |
| <b>8</b>  | <b>Zure lantokian ba al dago aipu, apaingarri edo irudi sexistarik? (egutegi, poster, eduki sexualeko aldizkari...)</b>                                                              |
| <b>9</b>  | <b>Inoiz lankideren batek bidali edo egin al dizu nahi ez zenuen txiste edo komentario sexualik?</b>                                                                                 |
| <b>10</b> | <b>Inoiz zure konfiantzaz baliatuta lanean gertatu al zaizu nahi ez zenuen kontaktu fisiko sexualik?</b>                                                                             |
| <b>11</b> | <b>Inoiz pairatu edo ikusi al duzu eraso sexualik? Horrela bada, nola erantzun duzu?</b>                                                                                             |



## ¿SABES DETECTAR LA VIOLENCIA SEXISTA?

No es lo mismo ser hombre o ser mujer en el mundo del trabajo, tampoco en el resto de los espacios de la vida. Esa desigualdad estructural está totalmente interiorizada y enraizada dentro de nosotras y de nosotros, y precisamente es la que mantiene y alimenta la violencia estructural que viven las mujeres por el mero hecho de ser mujeres; es decir, la violencia sexista.

¿Lo percibís como una realidad lejana? ¿Somos machistas? ¿De verdad creemos que la violencia sexista no tiene ninguna influencia sobre nosotras/os o en el mundo laboral?

Lee las preguntas, reflexiona y responde. Es recomendable escribir tus propias reflexiones

Valora si necesitas ayuda o información complementaria.

|           |                                                                                                                                                                                           |
|-----------|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <b>1</b>  | <b>¿Consideras que el hecho de que seas hombre o mujer afecta a tu trayectoria laboral? ¿Por qué?</b>                                                                                     |
| <b>2</b>  | <b>¿Alguna vez se ha puesto en duda alguna de tus capacidades y/o aptitudes laborales/profesionales por el hecho de que seas hombre o mujer?</b>                                          |
| <b>3</b>  | <b>¿Consideras que la conciliación de la vida laboral, familiar y personal impide el desarrollo profesional? ¿impide estar en espacios de decisión?</b>                                   |
| <b>4</b>  | <b>¿Crees que el no participar en actividades informales fuera del horario laboral puede afectar a tu trabajo? (poteo, cenas, etc..)</b>                                                  |
| <b>5</b>  | <b>¿Alguna vez has percibido un salario inferior por el mismo trabajo? ¿Por qué razones?</b>                                                                                              |
| <b>6</b>  | <b>¿Estás de acuerdo con frases como:<br/>"las mujeres en el trabajo son más malvadas que los hombres"<br/>"los hombres son más prácticos y racionales a la hora de tomar decisiones"</b> |
| <b>7</b>  | <b>¿Has sufrido o has escuchado comentarios vejatorios o descalificaciones públicas sobre tu persona u otra por aspecto físico, ideología u opción-identidad sexual?</b>                  |
| <b>8</b>  | <b>¿Existe en tu espacio laboral alguna referencia, decoración o motivo de índole sexista? (calendarios, posters, revistas de índole sexual...)</b>                                       |
| <b>9</b>  | <b>¿Alguna vez te han hecho o enviado algún chiste o comentario de índole sexual no deseado por parte de compañeros/as de trabajo?</b>                                                    |
| <b>10</b> | <b>¿Alguna vez han abusado de tu confianza y has tenido algún contacto físico sexual no deseado en tu trabajo?</b>                                                                        |
| <b>11</b> | <b>¿Alguna vez has sufrido o has visto una agresión sexual? En caso afirmativo, cómo has reaccionado?</b>                                                                                 |